EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI AL DUZU?




Gaur aterako dira buruhaundiak, ipurdiak berotzera.

gurean.eus

albistea//SANTIO JAIEN EGITARAUA

# Gozamenerako, bost egun haundi!

*Gaur lehertuko dira Santio jaiak Astigarragan, eta asteazkenera arte nagusituko da festa giroa.*

ASTIGARRAGA

2017/07/22 00:00 Larunbata

Bukatu da itxaronaldia astigartarrentzat! Gaur eguerdian, lanak festari egingo dio bidea, eta Santio jaiak lehertuko dira. Galtzaur elkarteak pregoia irakurri eta txupinazoa botatzen duen momentutik, festa giroa nagusituko da herrian, bost egunez; Santa Ana egunera arte, hain justu.

Egun bakoitza bere berezitasunekin, bere ekintza, jolas, emanaldi, kontzertu edota jan-edanekin, goizetik gauera bizituko dute astigartarrek.

Gaur bertan, Galtzaur elkartea omenduko duten egunean, 3x3 saskibaloi txapelketa, haur eta gazte bazkariak, erraldoi eta buruhaundiak musika, antzerki



PDF

URUMEA

*Abuztuak 23*

ESKELAK

HERNANI

***Fernando Ederra Iglesias***

Agenda Bateratua

//Erabiltzaileak

eta zirku emanaldiak, magia, txaranga, sokamuturra txikia eta kontzertuak izango dira, jaiak indartsu hasteko!

**GAUR, uztailak 22**

10:00, XVII. Iker Ruizen oroimenezko 3x3 Saskibaloi Txapelketa, goiz eta arratsalde, kiroldegian.
12:00, Txalapartariak, pregoia eta jaien hasierako txupinazoa, udaletxeko balkoitik. Galtzaur elkarteak irakurriko du pregoia, bere 35garren urteurrenean, eta alkate txikiekin batera emango die hasiera jaiei. Ondoren, Astigarragako Erraldoi eta Buruhandiak, Irrintzi konpartsakoekin eta Txirriskla elkarteko txistulariekin kalejiran.
14:00, Bazkariak: haur bazkaria Foru Plazan, Xaguxarrek antolatuta; eta Gaztelekuko bazkaria, Joseba Barandiaran plazan.
17:00, Fantasia eta Panpinak, musika, antzerkia eta zirkua, Joseba Barandiaran plazan.
18:00, Txokolate jatea, Foru Plazan, Xaguxarrek antolatuta.
18:30, Gazte Asanbladaren txosnaren irekiera.
18:30, Artistas del Gremio txarangaren kalejira.
19:00, Sokamuturra txikia, Foru Plazan.
22:30, Sun magoaren Magic ikuskizun haundia, Joseba Barandiaran plazan.
23:00-03:00, La Jodedera eta Autobus Magikoa taldeak eta DJ I. Alberro, txosnan.

**BIHAR, uztailak 23**

10:30, Haurrentzako Bizikleta Igoera, Joseba Barandiaran plazatik abiatuta. 2005-2013 urteetan jaiotako haurrentzat; izena emateko, 09:15etan irteeran.
12:00, Haurrentzako jokoak, Joseba Barandiaran plazan: zaku lasterketa, lokotx biltzea, sokatira... 4-11 urtekoentzat.
13:30, Sagartu, Oinkari dantza taldearen eta Hika teatroaren ikuskizun berria, Joseba Barandiaran plazan.
17:00, Zezen puzgarrien entzierroa haurrentzat, Galtzaurko zubitik hasita (eguraldi txarra eginez gero, Txomiñenen).
18:00, Varietetta antzerkia, Gazte Asanbladaren txosnan.
18:30, Apar festa, Foru Plazan.

## Puri-Purian

*«Zorionez, eraso sexista ...* (1)

*Argia, tunelaren bukaeran* (3)

## Urumeako gida

Komertzio bat bilatu
Bilatu



Orkolaga albaitaritza
Maskota bat aukeratzekotan zaude?

## Iragarki merkeak

*ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna.*

**Telefonoa: 616886660**

*Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... (Agustindarren plaza, 4)*

**Telefonoa: 943332894**

+ Ikusi

19:00, Pasai txaranga.
19:30, Hegaluzea eta Gernikako piperrak parrillan erreta, Joseba Barandiaran plazan.
23:00, La Basu rap kantaria, Joseba Barandiaran plazan.
23:00-04:00, Azken Sustraiak, Las Tipex eta Yakolev taldeen kontzertuak, txosnan.
00:30-02:00, Kaotiko taldearen kontzertua, Joseba Barandiaran plazan.

**ETZI, uztailak 24**

10:00, Euskadiko Toka Txapelketa, Norberto Almandoz plazan. Izenematea, bertan.
11:00-13:30, Haur parkea, ikastolako atarian: puzgarriak, haur gimnasioa, zezen mekanikoa...
11:00-13:30, Gazte parkea, Txomiñene frontoian: bizkor, salto!, enbor zoroak, pendulua...
12:00, Trintxerpeko erretiratuen abesbatza, J. Barandiaran plazan.
13:00, Astigarragako Erraldoi Txikien kalejira, Txirrisklako txistulariekin batera.
13:30, Trikipoteoa, Gazte Asanbladaren txosnatik abiatuta.
14:00, Erretiratuen bazkaria, Galtzaur elkartean.
14:30, Gazte bazkaria, txosnaren karpan.
16:00, Aulki Dantza, txosnan.
16:00, Fiesta Imperial bikotearekin dantzaldia, Norberto Almandoz plazan.
17:00, Elektrotxufla txaranga, Gazte Asanbladak antolatuta.
17:00-19:30, Haur parkea, ikastolako atarian: puzgarriak, haur gimnasioa, zezen mekanikoa...
17:00-19:30, Gazte parkea, Txomiñene frontoian: bizkor, salto!, enbor zoroak, pendulua...
17:30, Botiltzarra, edate arduratsuaz kalez kaleko ekimena.
19:00, Dantza errumaniarren erakustaldia eta hango hainbat edari eta janariren dastaketa, Joseba Barandiaran plazan.
20:30, Zerrien Lirika taldearen kontzertua, txosnan.
23:00-04:00, Ascensa Furore, Sardexka eta Stepi taldeen kontzertuak, txosnan.
23:30-03:00, Kresala taldearekin dantzaldia, J. Barandiaran plazan.

gur
Nol
Ongi Et
Gorliz-
parte h
HIRUK

Astiga
ORAII
gur

Zibers
prestal
“aitzin
Gipuzk
GUREA

**ASTEARTEA, uztailak 25**

09:30, Diana berezia, Norberto Almandoz musika eskolako eta Txirrisklako txistulariekin.
11:00, Meza nagusia, eta ondoren, Txirrisklako txistularien emanaldia, Santiomendiko Donejakue ermitan.
12:30, Udalbatzaren Soka Dantza, Foru Plazan.
13:00, Imperial Elegancia Mexicana mariatxia, Norberto Almandoz plazatik abiatuta.
18:00, Astigar taldearen dantza erakustaldia, Txomiñenen.
19:00, Maialen Akizu eta Xamoa bertsolariak, txosnan.
19:00, Euskal Herriko izaki mitologikoen kalejira, Galtzaurko zubitik abiatuta (eguraldi txarra eginez gero, ikastolako atarian).
19:30, Santa Ana eguneko idi demako pisaketa, Foru Plazan.
23:00-02:00, Oihan Vegarekin disko festa, J. Barandiaran plazan.
23:00-03:00, Anai eta Trikidantz taldearekin dantzaldia, txosnan.
00:00, Larrain Dantza, Foru Plazatik abiatuta.

**ASTEAZKENA, uztailak 26**

09:30, Iturengo joaldunak eta Astigarragako Estangar trikitilariak, kalejiran.
11:30, Baserriko tresna egileen erakusketa eta sagardo dastaketa, Foru Plazan.
11:30, Idi demak, Foru Plazan: 1.500 kiloko harriaz 20 minutu, lau idi parek: Pagadizabal, Etxetxo, J.M. Elola eta Matxain.
12:00, Agin Laburu eta Aitor Mendiluze bertsolariak, Foru Plazan. Goldeak antolatuta.
14:30, Bazkariak: Santa Anako bazkaria Rezola sagardotegian, Goldeak antolatuta; eta Elkartasun Bazkaria txosnan, Andoni Ollokiegi musikariak girotua.
18:00, Herri kirol jaialdia, Foru Plazan: eskualdeko herrien arteko desafioa, Alazne Etxaburua eta Irati Astondoa aizkolariak, eta Idoia Etxeberria harrijasotzailea.
18:30, Goazen! Joseba Barandiaran plazan. Telesail ospetsuko aktoreen laguntzarekin, dantzaldia eta karaoke irekia.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eg

Tweets por @KronikaNet



www.
.eus
Z

19:00, Jimmy Muelles kantautorea, txosnan.
19:00, Trikitilariak, Foru Plazan.
20:00, Berriketan, flamenkoa eta txalaparta elkarrekin, Askoa Etxebarrieta La Pulga dantzariarekin, J. Barandiaran plazan.
22:00-00:00, Rockalean, Joseba Barandiaran plazan.
22:30, Zezensuzkoa, Joseba Barandiaran plazan.

Atsegin dut 0 Txiokatu Whatsapp Emaila
Inprimitu

Zure domein

| Gaur | Bihar | Etzi |
|---|---|---|
| 23° | 25° | 24° |
| 18° | 19° | 17° |

Aemet eskainitako datuak

## IRUZKINAK

Sentitzen dugu, erabiltzen ari zaren nabigatzailea ez da bateragar bateragarria:

- Firefox
- Chrome
- Internet Explorer 11+
- Safari

## Azken argazkiak



Ergobiako Jaiak 2017



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...



Goizuetako Fiestak - A...

## Azken bideoak



Tolosa ahizpak txapeldun, Zestoako ...



«Urduri egongo naiz; hainbeste ...



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian



Azkeneko bideoak, web orrian

ARGITARATZAILEA

dobEra EUSKARA ELKARTEA

ZEIN GARA

URUMEAKO kronika

KONTAKTUA

Larramendi kalea 11 - Hernani 20120
Telefonoa: 943 33 08 99 / 688 660 714
E-maila: kronika@kronika.eus
astigarraga@kronika.eus
urumea@kronika.eus

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Hernaniko Udala
Astigarragako Udala
Ereñotzuko Auzo Udala
Aranoko udala
Goizuetako udala

DOBERA KRONIKA BAZKIDEAK

Legezko oharra